

Argitaratu dira GOFeko Enplegu Publikoaren Eskaintzako oinarri espezifikoak eta gai zerrendak

Desgaitasunen bat dutenen monitoreen, gizarte langileen eta psikologoaren 101 plazaren deialdietan parte hartu nahi dutenek haien edukia kontsulta dezakete Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren atarian

Eskaerak aurkezteko epea irailean irekiko da, eta probak abenduan hasiko direla aurreikusten da, pandemiak horretarako aukera ematen badu

Gasteiz, 2021eko abuztuaren 6a. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak GOFE Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2018ko, 2019ko eta 2020ko enplegu publikoaren eskaintzetako 101 plazen hautaprobaren deialdia, oinarri espezifikoak eta gai zerrendak argitaratu ditu. Hartara, iaz aurreikusitako eta koronabirusaren pandemiaren ondorioz geroratutako hautaprobak berriz egin ahal izango direla aurreikusten da.

Eskaerak aurkezteko epea irailean irekiko da, deialdi horiei buruzko iragarkia BOEn argitaratu ondoren. Data zehatza Enplegu Publikoaren Atariaren bidez iragarriko da, eta eskaerak telematikoki bideratuko dira. Probak abenduan hasiko dira, baldin eta pandemiari lotutako egoerak horretarako aukera ematen badu.

Hautaketa prozesuak 101 plazari dagozkie; haietatik 42 gizarte langilearen kategoriari dagozkio, 38 desgaitasuna dutenen monitorearen kategoriari eta gainerako 21ak psikologoaren kategoriari. Haiek guztiak profesionalenak dira eta aldundiaren gizarte zerbitzuen erabiltzaileei zuzeneko arreta eskainiko diete.

Guztirako 101 plazetatik 87 sistema librean aterako dira, eta gainerako 14ak, barne sustapenekoan. 68 plazak izango dute derrigortasun datadun euskararen hizkuntza eskakizuna, eta 9 plaza desgaitasuna duten pertsonentzat gordeko dira.0}

Oinarri orokorrak eta deialdi bakoitzaren espezifikoak jada argitaratu dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren atarian. Hautagaiek prestatu beharreko gai zerrendak jasotzen dituzte. Erreferentziatzko bibliografia ere argitaratu da.

Deialdiaren oinarri orokorrek xedatzen dutenez, oposizio-lehiaketa izango da hautaketa prozedura. Oposizioaldian, bi ariketa egin beharko dira; baztertzailak izango dira:

1. Lehenengo ariketan, proba bat izango da, test erakoa. zati komunaren eta gai-zerrendaren zati espezifikoaren edukiei buruzkoa.
2. Bigarren ariketa, gizarte langile eta monitoreen deialdietan, azterketa teoriko-praktiko bat izango da, gai zerrenda espezifikoari buruzkoa. Psikologoaren deialdian, kasu praktiko bat edo gehiago egingo dira.

Hautaketa prozesuan, gainera, euskara proba egingo da, eta lehiaketa fasean, esperientzia eta informatika ezagupenak balioetsiko dira. Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa oposizio aldian eta lehiaketa aldian lortutako puntuen batura izango da.

Foru Erakundeak 2018ko, 2019ko eta 2020ko EPEetako proba guztien egutegia egin eta bateratu du hurrengo hiru urteetan, eta, beraz, urtero egingo da deia enplegu publikoko hiru eskaintzetatik datozen kategoria berdinetako hautaketa prozesuetarako.